

ERTIBIL 40 ERTIBIL BIZKAIA ERTIBIL 40

ERTIBIL 40 ERTIBIL BIZKAIA ERTIBIL 40

ERTIBIL 40

KREDITUAK

CRÉDITOS

ERAKUSKETA / EXPOSICIÓN:

Talde Kuratoriala
/ Equipo Curatorial:
Andrea Estankona
Iván Gómez
Juan Pablo Ordúñez/Mawatres
Ion Macareno

Ikus-entzunezko hausnarketak
/ Reflexiones audiovisuales:
Arantza Lauzirika
Izaro Iregi
Estela Miguel+ Victoria Ascaso
M. Benito Píriz
Josu Rekalde
Miren Barrena
Raquel Asensi
Dr. Kortex
Helena Goñi
Luis Candaudap

Testuak / Textos:
Luis Candaudap
Ismael Manterola

Rekalde Aretoa / Sala Rekalde:
Alicia Fernández
Eztizen Esesumaga
Odoná Sánchez

Diseinua / Diseño:
Adrián Romero

Muntaia / Montaje:
Camilo Tonon
Ventura A. Pérez
AMD
Antonio Andrade
Aztí Cortes
DVE
Ainhoa Estébanez
Estefana Román

Ekoizpena / Producción:
Bizkaiko Foru Aldundia
Diputación Foral de Bizkaia

EGITARUA / PROGRAMA:

Topaketa dialogikoak
/ Encuentros dialógicos:
Taxio Ardanaz
Miren Arenzana
Zigor Barayazarra
consonni
Marion Cruza
Jaime Cuenca
Naia del Castillo
Irati Inoriza
Gema Intxausti
Miriam Isasi
Abigail Lazkoz
Maider López
Elena Mendizabal
Mikel Onandia
Sra. Polaroiska
Txuspo Poyo
Ixone Sábada

Proposamenak
/ Propuestas:
Elena Aitzkoa
Oier Iruretagoiena
Michelle Lima
Pablo Marte
Héctor Rey
Irantzu Yaldebere

Workshop tutoretzak
/ Tutorías Workshop:
Ane Rodríguez
(anemotorazing)
+ Sandra Amutxastegi
Diego Vivanco

Workshop-eko partaideak
/ Participantes Workshop:
Estel Falgas
Gari Arambarri
Hodei Herreros
Maite Choya
Mariem Iman
V́ctor Ortuño
Viviane Straub

LIBURUA / LIBRO:

Edizioa / Edición:
Talde Kuratoriala
/ Equipo Curatorial

Ekoizpena / Producción:
Bizkaiko Foru Aldundia
Diputación Foral de Bizkaia

Esku-hartze espezifikoak
/ Intervenciones específicas:
Alain Urrutia
Lide Billelabeitia
Karlos M.B.
Jone Elorriaga
Nora Aurrekoetxea
Susana Talayero

Kronikak / Crónicas:
Oihana Garro
Edurne González
Mario Espliego
Mar Reykjavik
Laura Díez
Basilika

Testuak / Textos:
Talde Kuratoriala / Equipo curatorial
Ismael Manterola
Carles Saurí


Argazkiak / Fotografías:
Jorge Isla
Talde Kuratoriala / Equipo Curatorial

Zuzenketak / Correcciones:
Naiara Herrera

Diseinua / Diseño:
Adrián Romero

Koordinazioa / Coordinación:
Antonio Andrade





AURKIBIDEA / ÍNDICE

15 **TOPAKETA ESPEKULATIBOA**
 / UN ENCUENTRO ESPECULATIVO
 Talde Kuratoriala / Equipo Curatorial

27 **KRONIKAK**
 / CRÓNICAS
 Oihana Garro
 Edurne González
 Mario Espliego
 Mar Reykjavik
 Laura Díez
 Basilika

137 **ARTEA ERAKUSTEKO**
 40 URTEKO IKASTALDIA
 / 40 LECCIONES PARA
 UNA EXPOSICIÓN DE ARTE
 Ismael Manterola

151 **ESKU-HARTZE ESPEZIFIKOAK**
 / INTERVENCIONES ESPECÍFICAS
 Alain Urrutia
 Lide Billelabeitia
 Karlos M.B.
 Jone Elorriaga
 Nora Aurrekoetxea
 Susana Talayero

221 **ESBORRANY: VERSIÓ PRELIMINAR**
 D’UN ASSAIG PER A UN CATÀLEG
 Carles Saurí


229 **IKUS-ENTZUNEZKO**
 HAUSNARKETAK
 / REFLEXIONES AUDIOVISUALES
 Arantza Lauzirika
 Izaro Ieregi
 Estela Miguel+ Victoria Ascaso
 M. Benito Píriz
 Josu Rekalde
 Miren Barrena
 Raquel Asensi
 Dr. Kortex
 Helena Goñi
 Luis Candaudap

259 **EMAGINAK**
 / PARTERAS
 Ane Rodríguez
 (anemotorazing)
 + Sandra Amutxastegi
 Diego Vivanco

294 **WORKSHOP**
 Estel Falgas
 Gari Arambarri
 Hodei Herreros
 Maite Choya
 Mariem Iman
 Víctor Ortuño
 Viviane Straub

POLITIKOA

LO
POLÍTICO



Urtarrilak 19
19 de enero

Ixone Sádaba
Miriam Isasi
Taxio Ardanaz
+
Irantzu Yaldebere

18:00etan
18:00h

PAPER ETA TINTA
MASA BAT

ERTIBIL40 topaketak Bizkaiko arte garaikidearen ekoizpen lehiaketa baten lau hamarkada ospatzen ditu; lehiaketa honek ahotsa eman die belaunaldi ugari urteen joanean. Rekalde Aretoan topaketak hartzen dituzten hormen gainazalean parte-hartzaile guztien irudi inprimatuen collage handia dugu, bere sorreratik gaur egunera arte. Irudia, edo, hobeto esanda, horien guztien batuketa, fantasma itxuraz hedatzen da aretoan, euskarriari itsatsitako larruazal bat bezala, memorialaren ideia horri berriro heltzen diola dirudi, zeinaren irudia eta leloa memoria kolektiboarekin batera agertzen baitira. Kasu honetan, zuri-beltzeko fotokopiak erabiliz gauzatu da, artistek hainbestetan burutzen dituzten autoekoitzitako argitalpenak gogora ekar ditzakeen egikera batekin.

Irudi-amalgama gorpuztu egiten da hartu eta horma bihurtzen da, aretoa besarkatuz bere forma erdizirkularrarekin erakusketa-espazioa marko bat bailitzan inguratzen duena. Irudiek begiratzen digute. Artistak begira dauzkagu.

Aretora sartzean, ezin dut saihestu begirada hori sentitzea, eta hurbildu ondoren, denbora luzea eman dut irudi horiei arretaz eta xehetasunez begiratzen. Horietan parte-hartzaile bakoitzaren aurpegia agertzen da, eta gehienei ez diet etxekotasunik igartzen.

Ehunka aurpegi —diot neure artean. Garai bateko eta besteko artistak, zu eta ni bezala, zentzuzko lan bat proposatzen ahalegindu zirenak.

Aretora joateko gonbidapenaren xede den eztabaida-saioa hasi da, gai interesgarri bezain jorrazin bati buruz: “politikoa” artean. Sutsuki eztabaidatu da: askatasunaren garrantziari buruz, artearen eraldatzeko gaitasunari buruz, politikaren fetitxizazioari buruz, etika eta moral indibidualari buruz, erantzukizun kolektiboari buruz, publikoaren parte-hartzearen eta aktibazioaren inguruan, arte politikoa zer den edo ez den asmatu gabe definitzen saiatzen gara... eta beste. Langileen borroken irudiak ikusi ditugu, gerra zibilaren oroimenari lotutako irudiak, sare sozialen irudiak, xehetasun biografikoak, ibilaldiak, bizipenak, aurkitutako objektuak, ekintza zehaztugabeen arrastoak, oroitzapenen irudiak, fukuratu gabeko argazkiak.

Publikoaren aurrean eserita nagoela, bat-batean, hormako irudiek eztabaidan parte hartzeko beharra sentitzen dutela ikusten dut. Solasaldian esandako hitz bakoitza koruan errepikatzen du paper gainean inprimatutako aurpegi txiki bakoitzak. Zerbait atsegina dago egoeran, gure hitzak berehala bihurtzen dira oihartzun. Egoerak horrela iraun du minutu batzuetan.

Halako batean, marmar burrunbatsu bat hedatu da areto osoan:

*-Uhhhhmaaaa waar ki makma di gostooooop.
Makkkkkmaaaa di wana fu furtuuuu. Furtu di makma de harrrrt.... Uhhhhmaaaa waar ki makma di gostooooop.
Makkkkkmaaaa di wana fu furtuuuu. Furtu di makma de harrrrt.... Uhhhhmaaaa waar ki makma di gostooooop.
Makkkkkmaaaa di wana fu furtuuuu. Furtu di makma de harrrrt.... Uhhhhmaaaa waar ki makma di gostooooop.
Makkkkkmaaaa di wana fu furtuuuu. Furtu di makma de harrrrt....*

Paperean inprimatutako aurpegiek ezagutzen ez ditugun esaldiak ahoskatzen hasten dira, hitz zehaztugabeak, ulertezinak. Bertaratutakoek ezagutzen ez duten hizkuntza batean eta kode batzuk erabiliz hitz egiten dutela dirudi. Geroago, isiltasuna.

Bat-batean, premia bat sortzen da kolektiboki, jarduteko premia. Elkartzekoa eta jardutekoa. Ustekabea, bertaratutako guztiok era batera hurbiltzen gara irudiotara, eta haiekin bat egiten dugu, aretoan nonahi dagoen papera erauzi eta pusketak egiten ditugu. Irudi inprimatuen tintak arrastoa uzten du gure ermamietan, pixkanaka ilunduz doazelarik kolore azabatxez margotu arte. Azkenik, eztabaida amaitzeko, adostasunez erabakitzen dugu topaketaren ondoriozko pieza bat eraikitzea. Hala, mugarri bat eraikitzea adosten dugu guztion artean. Oraina eta iragana lotuko dituen mugarria. Gaur egun lekua eta topaketa bera besarkatzen eta biltzen gaituzten belaunaldi horien guztien iraganarekiko lotura materiala.

Minutu batzuk geroago, aretoko hormetan itsatsita dauden irudi guztiak amorrutik erauzi ditugu. Txikitzen ditugu, kontu handiz. Gutako bakoitzak aurpegia urratzen du, ekarpen guztien Curriculum Vitaea, lan askoren testu pertsonalak. Jarraian, paper zati horiek guztiak kubo batean bota ditugu, eta, geroago, erakundeko bi kidek ura eta lekeda gehitu dituzte, ore lodi bat prestatzeko.

Atera den ore baliatuz, kubo bat sortu dugu aretoaren albo ezkutu batean. Lehen zabal-zabal hedatzen zen irudia 40 x 40 zentimetroko kubo txikia da orain, trinkoa eta isila.



PAPER ETA TINTA MASA BAT / MARIO ESPLIEGO

Goizeko 8:00ak dira eta tren bat hartu behar dut Madrilera. Geltokirako bidean hainbat gauza ditut buruan. Alde batetik, Wawel gazteluaren sabaiko kasetoiduran zizelkatutako buru batzuk gogoratzen ditut, epaiketa-gelan, XVI. mendeko Krakovian. Hamarnaka buru polikromatu ageri dira aretoaren goialdean eta, guztien artetik, aho estalia duen bat nabarmentzen da. Poloniako errege Augustok agindu zuen zerrenda bat zizelkatzea buru horren ahoa estaltzeko, audientzietako epaien bidegabekeria goialde horretatik zalantzan jartzen eta epaiketak eteten ausartzen zelako.

Bestalde, lankide batekin «politikari» buruz izandako elkarrizketa bat datorkit burura, desberdintasunaren aurreko gatazka gisa ulertua, eta artelan bakoitza blaitzen duena, baita normalean arte politikotzat hartzen den horretatik urrun daudela diruditenak ere. Hala eta guztiz ere, artista gisa, gure konpromisorik hertsiena hizkuntzarekin, formarekin eta irudimenarekin gertatzen da; erregistro horretatik soilik uler daiteke konpromiso ideologikoa jarduera artistikoan. Hau da: obra baten izaera politikoa ez dago bakarrik lanaren edukian, baizik eta obra hori landu eta gauzatzeko egintzan. Zortzi edo hamar orduko lan prekario baten ostean poema bat irakurtzeko edo eskultura bat egiteko gai den norbaitek, zeharkatzen gaituen gizarte kapitalistaren barruan keinu erabat politikoa planteatzen du. Kulturaren berezko izaera emantzipatzailea bere izate hutsean ere badago, aurkakoa saritzen duen errendimenduaren gizarte baten barruan; adibidez, «denbora galtzea» praktika artistikoarekin. «Denbora galtzen» ikastea, hori bai dela garrantzitsua.

Baina, orduan, non dago, antza denez, arteak bere gain hartzen duen nolakotasun eta jaidura eraldatzaile hori? —galdetzen diogu geure buruari. Artea egitea, poesia idaztea, politikoa da berez. Agian ez gaitasun politikoa, baina zalantzarik gabe, eraldatzeko asmoa.

Bereziki, beti interesatu izan zait keinu txikietan, subertsioaren marra eta xuxurletan sortzen den politika. Mirosław Balkaren pieza bat gogoratzen dut, Auschwitzeko kontzentrazio-esparruko B letraren gainean. Bertan, letra horri, tipografiari, eskalari, materialari, formari, fakturari, kokapenari begiratzen dio artistak. Arretaz behatzean, letra alderantzikatuta dagoela ohartu da. Nola da posible legearen eta ordenaren paradigma den erregimen nazionalsozialistaren pean, kontzentrazio-esparru bateko atxilotuta-aldi batean eta guardiaren begiradapean, atxilotu batzuek, metaleko langileek, historiako kontzentrazio-esparru garrantzitsuena izan denaren sarrera-kartel hori fakturatu zutenek, ez erreparatzea letra bat alderantzikatze subertsio-keinu txiki hori?, galdetzen digu Balkak bere lanean.

Paul Viriliok *Desagerpenaren estetika* lanean aipatu zuenez, «norberak begiratuko ez lukeenari begiratzea, entzungo ez lukeenari entzutea, hutsalari, arruntari, azpiarruntari adi egotea». Bada, funtsezkoa denetik anekdotikoraino doan hierarkia ukatzea, anekdotikoa existitzen ez delako, baizik eta geure baitatik eta besteengandik erbesteratzen gaituzten kultura menderatzaileak, kontzientziaren lo-kuluxka ez ezik, existentziaren gainbehera ere baden zentzu-galera dugu.

Azkenik, uste dut badela zerbait magikoa fosil baten topaketan, izarrei begiratzeak liluratzen gaituen bezala.

Ikusten dugun hori jada ez dago.

Ikusten dugun hori iragana da.

Zerura begiratu eta izar bati so egitea, agian duela milioika urte gertatu zen une bati begiratzea da. Duela gutxi, Hubble teleskopioak orain arteko izarrik urrunena antzeman du, Eearendel izenekoa. Hain urrun dagoenez, atzemandako argia unibertsoak mila milioi urte baino gutxiago zituenean igorri zen, hau da, ia 13.000 milioi urtez espazioan zehar bidaiatzen egon da sentsore elektrooptikoetan arrasto txikia utzi arte. Gerra Zibilean berebiziko garrantzia izan zuen Alcarriako leku zehaztugabe batean (ez dut haren izena emango, babesteko helburuz) borrokaren arrasto ugari daude. Denbora gelditu egin da eta paisaia malkartsu horretatik ibiltzean arrasto ugari aurkitzen dira: balak, zeramika hautsiak, borroka garaian datatutako kontserba-latak, metalezko tresnak, lubaki zatiak, aireko metrailadoreak jartzeko habiak, eta abar.

Hondakin horietatik guztietatik badira batzuk nire arreta erakarri zutenak. Inoiz ezer gertatu ez dela dirudien paisaia hura, bai, borrokak iraun zuen hiru urteetan matxinatuak Madrilgo hirira sar ez zitezen defendatzen zuten miliziano anarkistek eta Brigada Internacional 50eko partisoanok populatu zuten. Eredu alper eta baldarra da, gaur egun ahaztua eta abandonatua, Madrilen defentsa garatzeko lurralde estrategikoa izan zena. Bertan, kareharrizko haitz handiak daude, mendi-hegaletan pilatuta eta paisaian tumuluak osatuz pilatzen direnak. Horietako gehienek tokian bertan hartzen dute atseden euren berezko eiteari esker; gutxi batzuek, ordea, han zeudenetako eskultore izengabe baten jardueraren arrastoa darakutsate. Hainbat erliebe daude bertan: 50 idazkuna duen bost puntako izar bat (nazioarteko brigadari erreferentzia eginez), igitai bat eta eskala handiko mailu bat, emakumezko busto biluzi bat, Errepublikaren alegoria, Nazioarteko Brigaden hegazkin baten silueta bat, etab.

Aztarna hauek, zalantzarik gabe, garrantzi historiko nabarmena dute, agian gerrako fronte batean landutako izaera antifaxistako harrizko eskultura-hondarrak dituzten leku bakanetako bat delarik. Aurkitu nituenean harrituta geratu nintzen, ez baitira inskripzio edo marrazki soil batzuk, momentuak premiatzen zuen presaz eginikoak, harrizko tailuak baizik, jarduera horrek behar duen denbora eta lanketa kontuan hartuta. Eskultorearen eskuzko moldeak dute, arroka eroapen handiz pitzatuz joan zena, egun ageri diren diseinuak egin arte.

Haiek ikustean, harriduraz imajinatzen saiatzen naiz erliebe horien exekuzio-baldintzak nolakoak izango ziren. Data horiek guztiak 1937ko lehen hilabeteetakoak dira, gehienak Guadalajarako bataila deritzona gertatu zen egunekoak. Halako une batean, nola eskaini ahal izan zitzaion horrenbesteko denbora lan horri? Agian, indartsuagoa izan zen hurrengo belaunaldietan agertzeko grina, unibertsoaren espazio osoa zeharkatzen duen izarren argiarena bezala, uneen uneko pragmatismo nagusia baino. Jakina, bere balio artistikoaz haraindi, bere existentzia hutsa izugarria iruditzen zait.

Aretoan sortutako lehen aipatu dudan kubo hori gogoratzean, hainbat eta hainbat obra datozkit burura, leku isiletatik larrialdi politikoko kontuak xuxurlatzen dizkigutenak. Adibidez, Robert Morrisen kutxa ezaguna datorkit gogora, bere eraikuntzaren soinu bat igortzen duena, non tresnek eta lanari eskainitako denborak funtsezko eginkizuna betetzen duten. Artelan guztien keinuak eta trazu txikiak, edo haien gabezia, euren uneaz, ekoizpen-baldintzez, historiaz hainbeste kontatzen digutenak, funtsezko balioa dute edukian.

Gogoan dut, hala berean, Alexander Klugeren *Antzinate ideologikoaren berriak* izeneko filma, emakume bat kalean korrika agertzen den une batean zeinetan eszena gelditu egiten den, zer gertatzen den oso ondo azaldu gabe. Filmak fotograma geldituta jarraitzen du aurrera, xehetasun txiki bakoitza ia eldarnioz aztertuz, kameraren fokua irristatuz eta hartualdia osatzen duen objektu bakoitzaren istorioan barneratuz. Horrela, eszenan bertan bizi diren materialak eta arrastoak azpimarratzen dira. Klugek osagai ñimiño bakoitza aztertzen zuen, narratiba ofiziala izan zena kontuan hartu gabe. Jarrera batez ere politikoa da, narrazioa eta istorioaren eraikuntza zalantzan jartzea, alegia.

Arrasto txiki horietatik, adi egonez gero, belarria finduz gero, azal porotsua erabiliz gero eta beharrezko denbora emanez gero, irakurketa-bide txiki eta sotilak atzeman ahalko ditugu. Hor datza, nire ustez, eraldaketaren hasiera oro, arrasto txiki minimo horietan.

